



**EUSKADIKO TXIKIZKAKO MERKATARITZAKO EKIPAMENDU PERTSONALAREN  
AZPISEKTOREARI SOSTENGUA EMATEKO LAGUNTZA-PROGRAMAREN  
INGURUKO OHIKO-GALDERAK**

**1.- Nola eta non aurkeztu dezaket laguntzaren eskaera?**

Bitarteko elektronikoen bidez soilik aurkeztu ahal izango da eta telematikoki; Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren bidez (<https://www.euskadi.eus/servicios/1112901>). Eskaerak aurkezteko beharrezkoa izango da identifikazio elektronikoa erabiltzea (<https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>).

**2.- Nori zuzenduta daude?**

Egoitza soziala eta fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan duten norberaren konturako langileek edo langile autonomoek, ondasun-erkidegoek, sozietate zibilek, mikroenpresek eta enpresa txikiek eskuratu ahal izango dituzte laguntzak. Beti ere, beraien jarduera ondorengo talde hauetako Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren barruan sartzen bada:

- 47.71 JESN TALDEA: Jantzeko arropen txikizkako merkataritza saltegi espezializatueta.
- 47.72 JESN TALDEA: Oinetakoen eta larruzko artikuluen txikizkako merkataritza saltegi espezializatueta.

**3.- Non ikus dezaket zein den nire JESN taldea?**

Kode hori eraketa-eskriturretan ikus dezaket, bai eta Gizarte Segurantzaren aurkeztu behar diren edo Gizarte Segurantzak ematen dituen dokumentu guztietan ere.

**4.- "Txikizkako merkataritza"-ri dagokion EJZko epigrafe batean alta emanda banago, baina JESN kodea ez bada 47.71 edo 47.72, badaukat laguntza jasotzeko eskubiderik?**

Ez. Laguntzaren onuradun izateko bi JESN horietako batean inskribatuta egon behar da.

**5. - Zer betekizun gehigarri bete behar ditut JESNko kide izateko: 47.71 edo 47.72 2021eko otsailaren 15ean?**

- a) Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea eta laguntzaren xede den saltegia bertan egotea.
- b) Norberaren konturako langileen edo autonomoen kasuan, Langile Autonomoen Araubide Berezian alta emanda egotea.
- c) Erakunde eskatzaileak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egon beharko du.
- d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

**Ondasun-erkidegoen eta sozietate zibilen** kasuan, bertan parte hartzen duten pertsona guztiak, fisiko zein juridiko pribatuak, pertsona onuraduntzat hartuko dira, eta guztiek bete beharko dituzte agindu honetan ezarritako betekizunak eta baldintzak. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari bat izendatu beharko da, onuradun gisa elkarteari dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde askietsiak dituen.

## **6.- Laguntza ordezkari bidez eskatuz gero, zein dokumentazio osagarri aurkeztu behar dut?**

Eskabidearekin batera "Borondatezko Ordezkaritza Egilestea"-ren inprimakia aurkeztu behar da (<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/>)

Nortasun juridikorik gabeko erakundeen kasuan (ondasun-erkidegoa edo sozietate zibilak) beharrezkoa izango da ordezkari emateko inprimaki normalizatuaz gain, eratze-eskriurak ere eranstea.

## **7.- Gutxienez noiz arte bete behar dira laguntzaren onuradun izateko eskatzen diren baldintzak?**

Baldintzak, gutxienez, eskabideak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo lau hilabeteetan bete beharko dira; hau da, 2021eko uztailaren 31ra arte.

## **8.- Zenbat eskaera aurkez ditzaket?**

Eskabideak merkataritza-establezimenduaren arabera aurkeztuko dira. Merkataritza-establezimendu bat baino gehiago izanez gero, eskabide bat establezimendu bakoitzeko.

## **9.- Zein da laguntza eskatzeko epea?**

Epea 15 egun baliouduneko da. Martxoaren 9ko 9:00etatik 2021eko martxoaren 30eko 08:59ak arte.

## **10.- Eskaeraz gain, beste zein dokumentu aurkeztu behar dut?**

Kontuan izan behar da eskabidea oso-osorik bete behar dela, eta eskabidearekin batera honako dokumentu hauek bakarrik aurkeztu behar direla:

1. "Kotizazio-kontuaren kode baten lan-bizitzaren txostena" eta, langile autonomoaren kasuan, "Lan-bizitzaren txostena".
2. Hirugarrenen altaren eredu normalizatua: hirugarrenen altaren edo aldaketaren kasuan (<https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/>)

Ondasun-erkidego eta sozietate zibilen kasuan hirugarrenen altaren eredu normalizatuarekin batera, kontuaren titularra ondasun-erkidegoa edo sozietate zibila dela adierazten duen banku-ziurtagiria aurkeztu beharko da.

3. Ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak: eratze-eskriura.

### **11.- Zein da laguntzen zenbatekoa?**

Merkataritza-saltokian 2021eko otsailaren 15ean alta emanda zeuden langileen kopuruaren arabera da:

- 1-9 langile dituzten establezimenduentzat: 4.000 euro
- 10 langile edo gehiagoko establezimenduentzat: 4.500 euro

Langileak merkataritza-establezimendu bakar batera atxikituta egon beharko dira.

### **12.- Kontratutako langilerik ez badut, laguntza jasotzeko eskubiderik badut?**

Bai. Langile kopuruaren zenbaketan bai autonomoak bai soldatapekoak sartuko dira, 2021eko otsailaren 15eko lanaldia edo lan-egoera edozein izanik ere.

### **13.- Itzuli beharreko laguntza al da?**

Ez. Itzuli beharrik gabeko laguntza zuzena da.

### **14.- Nire udalerririk, probintziarik etab. beste laguntza programa baten deialdia egin du. Eskatu dezaket laguntza hau jaso arren?**

Bai. Laguntza hau bateragarria da administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuetatik datorren beste edozein diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

### **15.- Nola komunikatu naiteke laguntza hau kudeatzen duen administrazioarekin?**

Eskaera egin ondorengo izapideak: jakinarazpenak, errekerimenduak, dokumentazioa aurkeztea eta prozeduran inplikaturako gainerako izapideak Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko «Nire karpeta» aplikazioaren bidez soilik egingo dira (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta/>).

### **16.- Dokumentazio gehigarria aurkeztea**

Erakunde eskatzaileak prozeduraren edozein unetan aurkeztu duen nahitaezko dokumentazioaz gain, beste agiri batzuk ere aurkez ditzake. Bai hala eskatu bazaio bai bere borondatez egin badu; hala nola aitortutako edozein datu argitzeko memoria bat. Kontuan hartu behar da behin eskabidea aurkeztuta dokumentazioa aurkeztuz gero, eskabidearen aurkezpen-data azken dokumentua aurkeztu eta zuzena den data izango dela.

### **17.- Gerta daiteke laguntzara bideratutako baliabide ekonomikoak agortu eta laguntzarik ez jasotzea?**

Aurreikusitako eskabide guztiei aurre egiteko nahikoa diru-zuzkidura dago (15.800.000,00 euro). Nolanahi ere, Agindu Arautzaileak ez du eragozten zuzkidura handitzea, beharrezkoa izanez gero. Gehikuntza hori gertatuz gero, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

### **18.- Nola jakin dezaket laguntza onartu zaidala?**

Laguntza emateko ebazpena banan-banan jakinaraziko da, "Nire karpeta"-ren bitartez.

### **19.- Zein da Administrazioak laguntza ebazteko daukan epea?**

Merkataritzako zuzendariak hurrenez hurren ebatziko ditu eskabideak (eskabidea osorik formalizatzen den uneari erreparatuta), gehienez ere sei hilabeteko epean, eskabidea osorik aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik hasita, eta ebazpen arrazoitua emango du aurkeztutako dirulaguntza eskabide bakoitzari dagokionez.

Sei hilabete igarotzen badira ebazpenik eman eta jakinarazi gabe, pertsona edo erakunde interesdunak ezeztatutzat jo ahal izango du bere uzia, hargatik eragotzi gabe organo eskudunak berriazko ebazpena emateko duen betebeharra.

### **20.- Administrazioak egiaztatu dezake ea baldintzak betetzen jarraitzen dutan behin laguntza eskatu dutan jarduera ekonomikoan jardutera behartzen nauen gutxieneko aldia (4 hilabete) igaro ondoren?**

Bai, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak egokitzat jotzen dituen ikuskapenak eta egiaztapenak egin ahal izango ditu edozein unetan, eta pertsona edo erakunde onuradunek eskatzen zaien informazio osagarri guztia eman beharko dute.